

Hasierako onarpena:

Osoko bilkura: 2003-10-09

Behin betiko onarpena:

Osoko bilkura: 2004-10-21 GAO: 2004-11-29

Aldaketa Egun bat Gehitzea

Osoko bilkura 2017-11-28

EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO ZERBITZU PUBLIKOA ETA ARETO NAGUSIAREN, UDALBATZAR ARETOAREN NAHIZ BESTE ARETOREN BATEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua:

Areto Nagusia eta udalbatzar aretoa udal administrazioaren zerbitzura dauden udal ondasunak dira, jabari eta zerbitzu publikokoak, noizean behin udal honek antolatzen dituen kultur ekintzetarako, ekitaldi sozialetarako, aisialdirako eta horrelakoetarako erabiltzen direnak.

2. artikulua:

Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak 1995eko urtarrilaren 26an emandako instrukzioaren bidez alkateak edo herriko zinegotziren batek ezkontza zibilak baimentzeari buruzko jarraibideak arautzen dira. Instrukzio horrek honela dio:

***Bigarrena.**- Ezkongaiak ezkondu nahi dutela adierazi dutenean, aldez aurreko espedientea izapidetu duen erregistro organoak dagokion Udalari bidali beharko dio ofizialki ezkontzera datorren bikoteari buruz ezkontzaren inskripzioan jaso behar diren datu guztien zerrenda.*

Zerrenda hori jaso ondoren, alkateak ezkontza egiteko eguna eta ordua finkatuko ditu, eta ospakizuna horretarako egokitutako Udal lokalean egingo da. Ezkontzaren ekitaldi ospetsua egiteko alkatearen edo eskuordetza emandako zinegotziaren baimena behar da, beti ere adinez nagusi diren bi lekukoren aurrean (ikus Kode Zibilaren 57.1 artikulua).

3. artikulua:

Ezkontzak udaletxeko areto nagusian edo udalbatzar aretoan egingo dira edo, bestela, ezkontzetarako espreski prestatuko udalaren lokalen batean.

4. artikulua:

Alkateari edo berak eskuordetza eman dion korporazioko kideari dagokio, udalean ezkontza zibilak egiteko eskumena. Ezkontzak egun eta ordu hauetan egin ahal izango dira:

Egunak: Orduak:

Astelehenetik ostiralera 10:00- 14:00.

Hileko lehen eta hirugarren larunbatean 11:00 - 13:00.

5. artikulua

Derrigorrezkoa da ezkongaietako bat behintzat Hernanin erroldaturik egotea, edo inoiz erroldaturik egon izana, edo Hernanin etxebizitzaren baten jabe izatea.

6. artikulua:

Udalan ezkontza zibila egin nahi duten bikoteek idatziz eskatu behar dute Erregistro Orokorrean, ospakizuna egin nahi duten eguna baino bi hilabete lehenago, gutxienez, eta zein egunetan eta ordutan egin nahi duten adierazi behar dute. Alkateak, astebeteko epean, ezkontza egin daitekeen ala ez jakinaraziko die, ezkontzetarako aretoa libre dagoen edo beste ekitaldiren baterako behar den ikusi ondoren. Hartua badago, ekitaldi horrek izango du lehentasuna.

7. artikulua:

Ezkontza egin daitekeela ziurtatuta dagoenean, bikoteek 180 €ko fidantza jarri beharko dute. Fidantza hori ezkontza egin eta 3. egunetik aurrera itzuliko zaie, ordenantza honetan jartzen duena bete bada.

8. artikulua:

Bikoteek, nahi baldin badute, ezkontza egingo den aretoa lorez apaindu ahal izango dute, beraien kontura.

9. artikulua:

Egun berean eta ordu berean bi ezkontza egongo balira, lehenengo eskatu duen bikoteak izango luke lehentasuna.

10. artikulua:

Debekatuta dago ezkontza-ekitalditik ateratzerakoan udaletxeko eskaileretan eta udaletxeko arkupeetan arroza edo horrelakorik botatzea. Arroza botatzearen erantzukizun osoa ezkongaiena izango da. eta, horrenbestez, debeku hau betetzen ez bada, jarritako fidantza beretzat hartuko du Udalak.

11. artikulua:

Alkateari dagokio ordenantza honek jasotzen ez dituen alderdiak garatzea eta ezkontzak ospatzeko ezarritako data aldatzea justifikatzen duten ezinbesteko kasuak baimentzea.